




Eguzki-sistemako **PLANETAK**





Espazio-bidaia



Konta Kontari

Uda izarrak ikusteko urtaro egokia da. Zerua
oskabi dago eta gora begiratzuz gero, milaka
argi txikiak ikusiko dituzu. Izarrak dira.

**Eta izarren
artean
planetak
ezkutatzen
dira.**



Bazenekien lurratik
begiratuta beste
planeta batzuk ikusten
direla?



Oso urruti dauden ere, eguzki-
sistemako hainbat planeta ikusgai
daude gau batzuetan. Baina ez
denak. Planeta guztiak ikusteko bidai
espaziala egin beharko genuke.
Hortara goaz ba!

MERKURIO

Eguzkitik irten eta topatu dugun lehen planeta Merkurio da. Planetarik **txikiena** da.

Kolore argikoa. Eguzkitik oso gertu egon arren, ez da planetarik beroena.



Hala ere, han bizitza ezinezkoa da, eguzkiaren izpiek dena erretzen dute eta. Bere urteak oso laburrak dira, bere egunak berriz oso luzeak. Goazen hurrengora!

ARTIZARRA




Artizarra da bigarrena. Merkurio bezala harrizko planeta da, baina handiagoa. Ia Lurraren tamaikoa. Hau da bai planetarik **beroena**.

Baditu hodeiak, baina kontuz, toxikoak dira. Aldendu hemendik eta goazen hurrengora.

temperatura **499,85**
gradukoa izan daiteke

LURRA

Ah, gure planeta Lurra. Hau bai planeta zoragarria. Basoak, itsasoak eta hodeiak ikusten dira. Berdez, urdinaz eta zuriaz margotzen bada ere, espaziotik ikusta beste kolore bat agertzen da: marroi argia, basamortuena.




Haren inguruan dabil **Ilargia**. Gurea da, beraz, hirugarren planeta. Goazen orain laugarrenera.

Deimos



Fobos




MARTE

Hemen Marte, planeta **gorria**. Bigarren txikiena. Gizakiek egindako makinak honaino ailegatu dira. Eta badirudi martetarrik ez dagoela. Oso lehorra dela pentsatu ohi da, baina jakin izan dute ura badagoela, hori bai lur azpian izoztuta. Fobos eta Deimos dira bere ilargiak. Hor aurrean ikusten dut planeta erraldoia, goazen hara!

JUPITER

Hau Jupiter da, ez dago bera baino handiagoa. Merkurio, Artizarra, Lurra eta Marte ez bezala, Jupiter gazez dago osatua. Bertan ekaitz izugarriak daude. Handiena, **orban gorri** deritzona, aspaldi hasi omen zen. Hainbat eratzun fin-finak ditu inguruan. Ilargi ugari ditu, 95 alegia*,


*Ganimedes, Calisto,
Io eta Europa dira
bere ilargirik
handienak.*



*2023an

SATURNO

Hara hemen Saturno, hamar **eratzunez** inguratutako planeta ederra. Bigarren handiena eta eguzkitik seigarrena. Ilargi asko* dabil bere inguruan jiraka.



* 146 ilargi, behin-behinean

Guztien artean Titan handiena. Oso satelite berezia da, atmosfera du eta.

URANO


Bere ilargiek eleberri
ezagunen pertsonaien
izenak dituzte

Urano da zazpigarren planeta. Bigarren hotzena. Hainbat eraztun finak ditu inguruan, baina nekez ikusten dira.



Errotazio berezia du. Duela milaka urte, zerbaitek Urano jo zuela uste da, eta horregatik egiten du bira ezberdina. 27 ilargi ditu.


NEPTUNO



Azkena Neptuno da. Eguzkitik zortzigarren planeta. Guztien artean **hotzena**. Bere urteak oso luzeak dira. Haize ikaragarriak dira bertan. Hamalau ilargi dituela jakin izan da.

Horietatik, Triton handiena, alderatziz egiten du bira.

Beno ba, hauek izan dira zortzi planetak, Merkuriotik Neptunoraino.



Bidaia amaitu da, itzul gaitezen gure Lurra txikira:

HURRENGORA ARTE, AGUR!



www.kontakontari.com



@kontakontari

GALDERAK

1.- Zein da Eguzki-sistemako planetarik beroena?

- A) Merkurio
- B) Artizarra
- C) Marte

2.- Zein planetak ditu Fobos eta Deimos izeneko bi ilargiak?

- A) Marte
- B) Neptuno
- C) Jupiter

3.- Zein da planetarik hotzena?

- A) Merkurio
- B) Urano
- C) Neptuno

4.- Zein da hamar eraztun handiko planeta?

- A) Jupiter
- B) Saturno
- C) Urano

5.- Zein planetak ditu hodei toxikoak?

- A) Lurra
- B) Marte
- C) Artizarra

6.- Zein da Eguzkitik zazpigarren planeta eta du errotazio berezia?

- A) Urano
- B) Neptuno
- C) Saturno

7.- Zein da planetarik handiena?

- A) Artizarra
- B) Jupiter
- C) Urano

8.- Zein da planetarik txikiena?

- A) Merkurio
- B) Marte
- C) Lurra

GALDERAK

1.- Zein da Eguzki-sistemako planetarik beroena?

- A) Merkurio
- B) Artizarra
- C) Marte

2.- Zein planetak ditu Fobos eta Deimos izeneko bi ilargiak?

- A) Marte
- B) Neptuno
- C) Jupiter

3.- Zein da planetarik hotzena?

- A) Merkurio
- B) Urano
- C) Neptuno

4.- Zein da hamar eraztun handiko planeta?

- A) Jupiter
- B) Saturno
- C) Urano

5.- Zein planetak ditu hodei toxikoak?

- A) Lurra
- B) Marte
- C) Artizarra

6.- Zein da Eguzkitik zazpigarren planeta eta du errotazio berezia?

- A) Urano
- B) Neptuno
- C) Saturno

7.- Zein da planetarik handiena?

- A) Artizarra
- B) Jupiter
- C) Urano

8.- Zein da planetarik txikiena?

- A) Merkurio
- B) Marte
- C) Lurra

ERANTZUNAK

1.- B

5.- C

2.- A

6.- A

3.- C

7.- B

4.- B

8.- A

PLANETEN BIDEOA YOUTUBEN



PLANETEN AURKEZPENA GURE WEBGUNEAN

<https://www.kontakontari.com/mundua-ezagutzen/eguzki-sistemako-planetak/>

ASTRONOMIARI BURUZKO BALIABIDE GEHIAGO

<https://www.kontakontari.com/mundua-ezagutzen/>